

Euskadiko ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatzeko zerga-pizgarriak

Data: 2015eko urtarrilaren 29a

Lekua: IBP auditoriuma. Zuatzu Enpresa Parkea.
Juan Fermin Gilisagasti kalea, 2. Donostia.

Izen-ematea: Derrigorrezkoa, **formularioa** betez.

Bertaratzea dohainik. **Plaza mugatuak.**

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



donostiasustapena
fomento**sansebastián**

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan duela hilabete batzuk onartu zen sozietate-zergari buruzko foru-araudi berriak funtsezko aldaketa ezartzen du film luzeen, fikzioko edo animazioko ikus-entzunezko serieen edo dokumentalen Espainiako ekoizpenetan egindako inbertsioengatik ekoizleei aplikatzen zaizkien kenkariari dagokienez.

Jarduera ekonomikoaren gainerako sektoreetan zerga-kenkariak ia desagertu direla eta inbertsiogileak aplika dezakeen kenkariaren ehunekoia igo egin dela kontuan hartzen badugu, gainera, ezin da ukatu ikus-entzunezko sektorea polo erakargarria dela inbertsio pribatuarentzat, lehendik dauden lineen finantzaketaren iturri osagarri gisa. Hura aprobetxatzeko, Zinemaren 55/2007 Legeak interes ekonomikoko Elkarteak sortzeko eta Arrisku Kapitaleko Erakundeen bitartez inbertitzeko aukera sustatu zituen tresna bideratzaile gisa.

Era berean, ezin da zalantzan jarri ezinbestekoa dela araua aplikatzeko mekanismoa eta arauaren balizko garapena eraginkorrak eta sinpleak izatea eta behar den segurtasun juridikoa ematea.

Egoera horren aurrean, IBAIA Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, EGEDA ikus-entzunezko ekoizleen eskubideak kudeatzeko Erakundearen eta Donostiako Sustapen Sailaren laguntzarekin, Jardunaldi hau antolatu du dauden kenkariak, kenkari horien aplikagarritasuna, dauden aurrekariak, haien eraginkortasuna eta ezarritako neurriak sektorearen ikuspegitik nahiz inbertsiogile pribatuaren ikuspegitik hobetzeko egon daitezkeen gaiak ezagutarazteko eta aztertzeko.

Egitaraua

□ 10:30 / 10:45 Aurkezpena

* Joxe Portela jauna (IBAIAREN presidentea)

* Clara Montero andrea. (Kultura Sustatzeko zuzendaria,
Eusko Jaurlaritza)

□ 10:45 / 11:30 Film luzeen, fikzioko edo animazioko ikus-entzunezko serieen edo dokumentalen Espainiako ekoizpenetan egindako inbertsioengatik aplikatutako kenkaria.


* Iñigo Garmendia jauna (Norgestión)

□ 11:30 / 12:00 Kaferako etenaldia

□ 12:00/12:45 Film luzeen Espainiako ekoizpenetan egindako inbertsioengatik kenkariaren aplikazioa azaltzeko kasu praktikoa.

* David Naranjo jauna. (La Zona Films)
Estatuko araudiaren aplikazioa

* Iñigo Garmendia jauna. (Norgestión)
Foru-araudiaren aplikazioa.

- 
- 12:45 / 13:30 Euskadiko ikus-entzunezko sektorea inbertsio pribaturako erakargarria izan dadin sendotzeko premiak.

Mahai-ingurua

- * David Naranjo jauna. (La Zona Films)
- * Iñigo Garmendia jauna. (Norgestión)
- * Fernando de Miguel jauna (Wandermoon)

Moderatzailea:

- * Joxe Portela jauna (IBAIAREN presidentea)